Los datos que deberán hacerse constar para la identificación de las Uniones, Federaciones y Confederaciones de Cooperativas y otras entidades asociativas que agrupen mayoritariamente a Cooperativas son los siguientes: denominación, domicilio social, Territorio Histórico, clase y fecha de entrada del expediente en el Registro.

Era berean, orriaren goi-eskuineko ertzean entitatearen inskripzio-zenbakia ipiniko da, baita, hala badagokio, aurreko Erregistroan egokitu zitzaion zenbakia ere.

16. artikulua.— Europar kooperatiben inskripzio-liburua.

Hona hemen europar kooperatibak identifikatzeko erakutsi beharreko zehaztasunak: kooperatibaren izena, helbidea, mota, helburua eta gutxieneko baltzu-kapitala.

17. artikulua.— Gaitze eta legeztatzeen fitxategi-liburua.

Gaitze eta legeztatzeen fitxategi-liburua kooperatiba nahiz, hala badagokio, kooperatiba-elkartea bakoitzarentzako fitxa bidez eramango da. Fitxa horietan, hain zuzen ere, honako datuok adieraziko dira: baltzuaren izena eta inskripzio-zenbakia, gaitu nahiz legeztatutako liburu mota eta gaitu edo legeztatutako eguna.

18. artikulua.— Kontu-gordailuen fitxategi-liburua.

Kontu-gordailuen fitxategi-liburua kooperatiba bakoitzarentzako fitxa bidez eramango da. Fitxa horietan, hain zuzen ere, honako datuok adieraziko dira: baltzuaren izena eta inskripzio-zenbakia, gordailatutako agiri mota, zein egunetan gordailatu zen eta gordailuari dagokion ekitaldi ekonomikoa.

2. ATALA IDAZPENAK

19. artikulua.— Idazpen-motak.

1.— Erregistroko liburueta honako idazpen-mota hauek egingo dira:

- a) Inskripzioak.
- b) Prebentziozko oharpenak.
- c) Baliogabetzeak.
- d) Ertzetako oharrik.

2.— Erregistroko arduradunak bere sinadurarekin eta zigiluz baimenduko ditu egiten diren idazpenak.

20. artikulua.— Idazpenak nola egin.

1.— Idazpenak labur egingo dira, inskribatu den agiria dagoen agiritegiaren erreferentzia eginez.

2.— Inskribatu beharreko agiriak idatzita dauden hizkuntzan egingo dira Erregistroko idazpenak; Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak bat izango da.

Erakutsi eta/edo egiazatzeko, aipatutako hizkuntza ofizial horietatik edozeinetara itzuliko dela bermatuko da; interesatuak eskatuta egingo da itzulpena.

3.— Idazpenak bata bestearen jarraian egingo dira, eta idatzi gabe utzitako tarte zuriak marra batez balio-gabetuko dira.

Asimismo, en el ángulo superior derecho de la hoja se hará constar el número de inscripción de la entidad y, en su caso, el número con el que figurase inscrita en el anterior Registro.

Artículo 16.— Libro de inscripción de Sociedades cooperativas europeas.

Los datos que deberán hacerse constar para la identificación de las Sociedades cooperativas europeas son los siguientes: denominación social de la Cooperativa, domicilio social, clase de Cooperativa, objeto social y capital social mínimo.

Artículo 17.— Libro fichero de habilitaciones y legalizaciones.

El Libro fichero de habilitaciones y legalizaciones se llevará mediante fichas individualizadas para cada Cooperativa, o, en su caso, Asociación intercooperativa, en las que se hará constar la denominación de la entidad y su número de inscripción, la clase de Libro habilitado o legalizado y la fecha de habilitación o legalización.

Artículo 18.— Libro fichero de depósito de cuentas.

El Libro fichero de depósito de cuentas se llevará mediante fichas individualizadas para cada Cooperativa en las que se hará constar: la denominación social de la entidad y su número de inscripción, tipo de documento depositado, fecha de depósito y ejercicio económico a que hace referencia el depósito.

SECCIÓN 2.^a ASIENTOS

Artículo 19.— Clases.

1.— En los Libros del Registro se practicarán las siguientes clases de asientos:

- a) Inscripciones.
- b) Anotaciones preventivas.
- c) Cancelaciones.
- d) Notas marginales.

2.— La persona encargada del Registro autorizará con su firma y sello los asientos extendidos.

Artículo 20.— Extensión de los asientos.

1.— La extensión de los asientos se hará de forma succincta, remitiéndose al archivo correspondiente donde conste el documento objeto de inscripción.

2.— Los asientos del Registro se extenderán en la lengua oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco en que aparezcan redactados los documentos objeto de inscripción.

A efectos de exhibición y/o certificación, se garantizará la traducción a cualquiera de las citadas lenguas oficiales, a solicitud de la persona interesada.

3.— Los asientos se practicarán a continuación unos de otros, inutilizando los espacios en blanco de las líneas que no fueran escritas por entero, mediante una raya.

Lehendik inskribatutako zehaztasun nahiz bestelako gorabeheren ordez erreferentzia soilak egin daitezke, behin eta berriro errepika ez daitezen.

4.– Idazpenetan pertsona fisikoaren nortasuna agertarazi nahi denean, haren izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, jaioteguna eta helbidea adieraziko dira. Pertsona juridikoak identifikatzeko, baltzuaren izeña eta identifikazio fiskaleko kodea adieraziko dira.

5.– Baltzu-kapitalari buruzko kopuru, data eta zenbakiak letraz adieraziko dira. Gainerako kasuetan zenbakiak erabil daitezke.

21. artikulua.– Idazpenen antolaketa.

1.– Inskripzio-liburuetan egindako inskripzioak eta horien ezeztapenak idazpenentzat prestatutako eskuneko zutabeen egingo dira, bata bestearen jarraian, eta hurrenez hurren zenbaki bidez zerrendatuko dira.

2.– Prebentziozko oharpenak eta horien ezeztapenak inskripzioak egiteko eta horiek ezeztatzeko ezarritako eran egingo dira.

3.– Ertzeko oharrak erregistro-orriaren ezkerraldean egingo dira, eta argi eta labur adieraziko da inskripzioarekin zein harreman duten.

22. artikulua.– Agiriak bidaltzea.

Inskribatu behar diren agiriak Erregistroan aurkeztuko dira, zuzenean, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Procedura Erkideari buruzko Legearen 38.4 artikuluan ezarritako moduren batean.

23. artikulua.– Idazpenen edukia.

Inskribatzeko, ezeztapena egiteko nahiz prebentziozko oharpenak egiteko idazpen orok, gutxienez, honako zehaztasun hauek izan behar ditu:

a) Agiri mota eta horren izaera.

b) Agiria non eta noiz egin den.

c) Baimentzeari edo egiteari buruzko zehaztasunak, baita baimena ematen duen notarioaren, edo agiri publikoak baldin badira, horiek ematen dituen epaile, auzitegi edo funtzionarioaren izena ere; bestela, agiri privatuak sinatzen dituztenen izenak.

d) Idazpena egin den eguna eta Erregistroaren arduradunaren sinadura.

24. artikulua.– Akatsen zuzenketa.

1.– Inskripzio, ezeztatze, prebentzio-oharpen nahiz ertzeko oharretan egindako akatsak ezingo dira zuzenketa, zirriborro edo marra bidez konpondu. Horretarako, beste idazpen bat egingo da, eta bertan gar-

Los datos u otras circunstancias ya inscritos podrán sustituirse por simples referencias, con objeto de evitar su reiteración.

4.– Cuando en los asientos haya de hacerse constar la identidad de una persona física, se consignarán su nombre y apellidos, número de documento nacional de identidad, fecha de nacimiento y domicilio. Para la identificación de las personas jurídicas se hará constar la denominación social de la entidad y su código de identificación fiscal.

5.– Las cantidades, fechas y números que hagan referencia al capital social se expresarán en letras. En los demás casos podrán emplearse los guarismos.

Artículo 21.– Ordenación de los asientos.

1.– Las inscripciones y sus cancelaciones, extendidas en los Libros de inscripciones, se practicarán en la columna derecha destinada a los asientos, a continuación una de otra y se enumerarán de forma correlativa mediante guarismos.

2.– Las anotaciones preventivas y sus cancelaciones se practicarán en la forma señalada para las inscripciones y sus cancelaciones.

3.– Las notas marginales se practicarán en el margen izquierdo de la hoja registral y se expresará clara y sucintamente la relación que tengan con la inscripción registral a la que vengan referidas.

Artículo 22.– Remisión de documentos.

Los documentos objeto de inscripción podrán ser presentados en el Registro, bien directamente o a través de cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 23.– Contenido de los asientos.

Todo asiento de inscripción, cancelación o anotación preventiva ha de contener, al menos, las siguientes circunstancias:

a) Naturaleza y clase de documento.

b) Lugar y fecha del documento.

c) Los datos de su autorización o expedición, así como el nombre del Notario autorizante o el Juez, Tribunal o funcionario que lo expide en el caso de los documentos públicos, o el nombre de las personas que suscriben los documentos privados.

d) Fecha del asiento y firma de la persona encargada del Registro.

Artículo 24.– Rectificación de errores.

1.– Los errores cometidos en alguna inscripción, cancelación, anotación preventiva o nota marginal, no podrán rectificarse mediante enmienda, tachas o raspaduras. La rectificación se realizará mediante la extensión

bi adierazi beharko da zein den zuzendu den akatsa, eta idazpenak hasiera-hasieratik nolakoa izan behar zuen.

2.– Ertzeko oharren zuzenketa, zuzentzen diren oħaretatik ahalik eta gertuen egingo da.

3.– Erregistroko idazpenen bat zuzentzen denean, idazpen berrira jotzeko behar adinako oħarra egingo da idazpen okerraren ertzean.

4.– Inskripzio, prebentziozko oħarpen, ezeztatze naħiż ertzeko oħarren bat zuzendutakoan, zuzendutako gaiari buruzko beste idazpenak ere zuzendu egingo dira, okerrak baldin badira behintzat, nahiz eta beste liburu batzuetan egon.

Zuzenketa hori ertzean oħar bat ipiniz egingo da.

25. artikulua.– Idazpenak egiteko epea.

«Kooperativak» alorrean eskumena duen Sailaren Erregistroan agiria aurkezten denetik aurrera, hiru hilabekoa epea egongo da idazpenak egiteko, legezko xedapen edo arauetan kontrakorik ezartzen ez bada, behintzat.

3. ATALA

KALIFIKAZIOA ETA ERREKURTSOAK

26. artikulua.– Kalifikazioaren eremua.

1.– Erregistroko kalifikazioa erregelamendu honen 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

2.– Inskriba daitezkeen agirien forma aldetiko lege-hutsegiteak izango dira agiri horien baliagarritasunari eragiten dietenak, horien itxurak nolakoa izan behar duen erabakitzen duten arauetarri jarraiki, baldin eta hutsigite horiek aurkeztutako agirietan gertatzen badira.

Orobak, aintzat hartuko dira honako hauek: inskripzioak nahitaez jaso behar duen zernahi gorabehera aipatu gabe utzi edo behar bezain argi azaldu ez izana, inskribatu beharreko agiriak eman dituztenen legitimazioa –salbuespina izango da erregelamendu honen Xedapen Gehigarrietatik seigarrenean aurreikusitakoa–, eta agiri horien edukiaren balioa.

27. artikulua.– Kalifikazioa emateko epea.

Erregelamendu honen 25. artikuluan idazpenak egiteko ezarritako epeetan eman beharko da kalifikazioa.

28. artikulua.– Kalifikazioa.

1.– Erregistroaren kalifikazioak inskripzio-ondorioak izango ditu soil-soilik. Kalifikazioa ematen denean, eskatutako idazpenea inskribatu egingo da, edo bestela, ukatu egingo zaio inskripzioa.

2.– Kalifikazioak globala eta bateratzailea behar du izan.

de un nuevo asiento al que se otorgará un número nuevo y en el que se expresará con claridad cuál es el error rectificado, así como los términos en que el asiento debiera haberse practicado originariamente.

2.– La rectificación de notas marginales se extenderá lo más cerca posible de las rectificadas.

3.– Cuando se haya rectificado un asiento registral, se extenderá al margen del asiento erróneo una remisión suficiente al nuevo asiento.

4.– Rectificada una inscripción, una anotación preventiva, una cancelación o una nota marginal, se rectificarán también el resto de los asientos relativos a las materias afectadas, aunque se encuentre en otros Libros, si también fueran erróneos.

Dicha rectificación se realizará mediante la extensión de la correspondiente nota marginal.

Artículo 25.– Plazo para la práctica de los asientos.

Salvo disposición legal o reglamentaria en contrario, los asientos se practicarán dentro del plazo de tres meses desde la fecha de presentación del documento en el Registro del Departamento competente en la materia «cooperativas».

SECCIÓN 3.^a

CALIFICACIÓN Y RECURSOS

Artículo 26.– Ámbito de la calificación.

1.– La calificación registral se extenderá a los extremos previstos en el artículo 6 del presente Reglamento.

2.– Se considerarán faltas de legalidad formal de los documentos inscribibles, las que afecten a su validez, según las normas que determinan su forma, siempre que resulten de los documentos presentados.

Del mismo modo, se apreciará la omisión o la expresión sin claridad suficiente de cualquiera de las circunstancias que necesariamente deba contener la inscripción, la legitimación de los otorgantes de los documentos objeto de inscripción, salvo en el caso previsto en el párrafo primero de la Disposición Adicional Sexta de este Reglamento, y la validez del contenido de dichos documentos.

Artículo 27.– Plazo de calificación.

La calificación se realizará dentro de los plazos señalados para la práctica de los asientos en el artículo 25 de este Reglamento.

Artículo 28.– Calificación.

1.– La calificación del Registro se entenderá limitada a los solos efectos de la inscripción. Como resultado de la misma, se procederá a la extensión o a la denegación del asiento solicitado.

2.– La calificación deberá ser global y unitaria.

3.- Kalifikazio-ebazpena arrazoitua izango da.

Idazpenaren inskripzioa ukatzen baldin bada, kalifikazio-ebazpenean gertakariak eta hautsitako xedapenak azaldu beharko dira, ukazio hori eragiten duten okerrak zeintzuk diren argi eta garbi azalduz.

4.- Kalifikazio-ebazpena Herri Administratzioen Araubide Juridikoaren eta Administratzio Procedura Erkidearen Legean aurreikusitakoaren arabera jakinaraziko zaie interesatuei, eta inskribatutako tituluak —behar bezala bideratu direnak edo aldatu behar direnak— erantsiko dira.

29. artikulua.— Kalifikazioaren ondorioak.

1.- Tituluak akatsik ez balu, eskatutako idazpenak egingo lirateke berehala, eta, tituluarekin batera, inskripzio-eguna adierazten duen eginbidea bidaliko litzateke, behar bezala zigilatuta eta sinatuta.

2.- Tituluak akatsik balu, inskripzioa ukatuko litzateke —arrazoia emanet—.

30. artikulua.— Tituluaren zati bat inskribatzea.

1.- Inskribatu beharreko tituluan gertakari, egintza nahiz negozioak jaso badira —elkarrekin inolako loturarrak ez dutenak—, eta Erregistroaren arduradunak haitako batean akatsen bat antzematen badu, akatsik gabeak inskribatu ahal izango dira, eta horiei buruz eskatutako idazpena egin beharko da.

2.- Antzemandako akatsek tituluaren zati bati eragiten badiete, eta beste zatiari ez badiote eragiten, tituluaren zati hori inskribatu ahal izango da. Klausula nahiz estipulazio akasdunak aukerakoak badira edo horien ordez beharrezko lege-arauak ezartzen badira egin ahal izango da soilik inskripzioa.

31. artikulua.— Kalifikazioaren aurkako errektsoak.

1.- Kalifikazio-ebazpenak tituluari Erregistroan sartzea eragozten dion akatsen bat egozten badio, gora jotzeko errektsoa ezarri ahal izango da Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordearen aurrean, eta aipatutako Lege horren 114. artikulutik 116. artikulura ezarritako arauetik jarraituz bideratuko da.

2.- Hala ere, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, kalifikazio-ebazpenak zehatztuko du, auzibide zibilera jo aurreko erreklamazioaren jatorria; erreklamazio hori Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari ezarriko zaio, eta Herri Administratzioen Araubide Juridikoaren eta Administratzio Procedura Erkidearen Legearen 120. artikulutik 124. artikulura ezarritako arauen arabera bideratuko da.

3.- Aurreko paragrafoetan adierazitako gora jotzeko errektsoa edo aldez aurreko administrazio-erreklamazioa honako hauek ezarri ahal izango dute:

3.- La resolución de calificación será motivada.

En los supuestos de denegación de la extensión del asiento, la resolución de calificación expondrá los hechos y las disposiciones infringidas, indicando con claridad todos los defectos por los que proceda la denegación.

4.- La resolución de calificación habrá de ser notificada a las personas interesadas en los términos previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, adjuntando los títulos inscritos debidamente diligenciados o, en su caso, los sujetos a modificación.

Artículo 29.— Efectos de la calificación.

1.- Si el título no contuviera defectos se practicarán inmediatamente los asientos solicitados y se devolverá el mismo con diligencia expresiva de la fecha de la inscripción, debidamente sellada y firmada.

2.- Si el título contuviera defectos, se denegará motivadamente la inscripción.

Artículo 30.— Inscripción parcial del título.

1.- Si el título inscribible contuviera varios hechos, actos o negocios independientes unos de otros, los defectos que la persona encargada del Registro apreciase en alguno de ellos, no impedirán la inscripción de los demás, debiendo practicarse, respecto de éstos, los asientos solicitados.

2.- Si los defectos apreciados afectaran a una parte del título y no impidieran la inscripción del resto, deberá practicarse su inscripción parcial. Esta inscripción sólo será posible cuando las cláusulas o estipulaciones defectuosas sean meramente potestativas o cuando su omisión en la inscripción quede suplida por las normas legales correspondientes.

Artículo 31.— Recursos contra la calificación.

1.- Contra la resolución de calificación que atribuya al título algún defecto que impida su inscripción en el Registro cabrá formular recurso de alzada, que se interpondrá ante el Viceconsejero de Trabajo y Seguridad Social y se sustanciará conforme a los artículos 114 a 116 de la Ley mencionada en el número anterior.

2.- No obstante, y de conformidad con lo establecido en el artículo 18 de la Ley de Cooperativas de Euskadi, la Resolución de Calificación determinará, en su caso, la procedencia de la interposición de la reclamación previa a la vía judicial civil que se formulará ante el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y se sustanciará conforme a las normas previstas en los artículos 120 a 124 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.- Están legitimados para la interposición del recurso de alzada o la reclamación administrativa previa mencionados en los dos párrafos anteriores:

a) Inskripzioa egiteko eskatu duen pertsonak, alegia, inskripzio horren ondorioak bermatu nahi dituenak, eta inskribatu behar diren tituluen legezko edo borondatezko ordezkaritza nabarmena duenak edo ordezkaritza hori benetan egiaztatu duenak.

b) Ministerio fiskalak, aginte judizialak emandako agiriak direnean, eta legeen arabera gai horietan parte hartu behar duenean.

c) Baimena ematen duen notarioak.

4.– Kalifikazioaren aukako errekurtoek ez dute aldeen arteko kontraesanik eragingo.

II. TITULUA

KOOPERATIBAK ETA EUREN EGINTZAK INSKRIBATZEA

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

I. ATALA INSKRIBA DAITEZKEEN EGINTZAK ETA TITULUAK

32. artikulua.– Inskribatu beharreko egintzak.

1.– Hona hemen kooperatiba bakoitzarentzat ireki-tako orrian derrigor adierazi beharreko egintzak:

a) Kooperatibaren eraketa, nahitaez lehendabizi inskribatu behar dena.

b) Estatutuetan egiten diren aldaketak.

c) Administratzairen titularren izendapenak eta kargu-uzteak.

d) Batzorde Betearazleko kideen eta, kasua balitz, kontseilarri ordezkarien izendapena eta kargu-uztea, baita zuzendari gerente baten edo gehiagoren izendapena eta kargu-uztea ere.

e) Ahalordetza, orohar —baita zuzendari-gerenteara ere—, eta Artezkartza Batzordearen eskumenak Batzorde Betearazlearen nahiz kontseilarri-ordezkarien esku uztea, eta, kooperatiben korporazioak direnean, zuzendaritzaren esku uztea.

f) Zaintza Batzordeko, eta behar izanez gero, Kontrol Kontseiluko kide titularren izendapena eta kargu-uztea.

g) Kooperatibaren eraldatzea, bategitea eta banatzea.

h) Kooperatiba desegitea eta likidatzea.

i) Konkurtso-deklarazioa eta aldi baterako eskuhartze-neurriak.

j) Ebazpen judizialak eta administratiboak, Euskadiko Kooperatiben Legean nahiz erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.

a) La persona a cuyo favor se hubiera de practicar la inscripción, quien tenga interés conocido en asegurar los efectos de ésta y quien ostente notoriamente o acredice en forma auténtica la representación legal o voluntaria de unos u otros para tal objeto.

b) El Ministerio Fiscal, cuando se trate de documentos expedidos por autoridad judicial y que se refieran a asuntos en que deba ser parte con arreglo a las leyes.

c) El Notario autorizante, en todo caso.

4.– En ningún caso los recursos contra la calificación tendrán carácter contradictorio entre partes.

TÍTULO II

INSCRIPCIÓN DE SOCIEDADES COOPERATIVAS Y DE SUS ACTOS

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

SECCIÓN 1.^a ACTOS Y TÍTULOS INSCRIBIBLES

Artículo 32.– Actos objeto de inscripción.

1.– Son actos objeto de inscripción obligatoria en la hoja abierta a cada Sociedad:

a) La constitución de la Cooperativa, que será necesariamente la inscripción primera.

b) Las modificaciones estatutarias.

c) El nombramiento y cese de los administradores titulares.

d) La designación y cese de los miembros de la Comisión Ejecutiva y Consejeros Delegados, en su caso, así como el nombramiento y cese de uno o varios Directores Gerentes.

e) El apoderamiento general, incluido el de los Directores Gerentes, y las delegaciones permanentes de facultades del Consejo Rector en la Comisión Ejecutiva o en los Consejeros Delegados y, cuando se trate de Corporaciones Cooperativas, en la Dirección.

f) Nombramiento y cese de los miembros titulares de la Comisión de Vigilancia y, en su caso, del Consejo de Control.

g) La transformación, fusión y escisión de la Cooperativa.

h) La disolución y liquidación de la Cooperativa.

i) La declaración de concurso y las medidas de intervención temporal.

j) Las resoluciones judiciales y administrativas en los términos previstos por la Ley de Cooperativas de Euskadi o por este Reglamento.

k) Oro har, egindako idazpenak aldatzen dituzten egintza edo kontratuak,edo legeen nahiz erregelamendu honen arabera, inskribatu egin behar direnak.

2.- Honako egintza hauen inskripzioa aukerakoa izango da:

a) Kontseilu Sozialeko eta Errekurtso Batzordeko ki-deen izendapena eta kargu-uztea, baita ahalordetze bereziak ere.

b) Ordezkoen inskripzioa, kargu hutsak betetzen ez badituzte.

c) Auzietarako botere orokorra.

33. artikulua.- Inskribatu beharreko titulua.

1.- 32.1 artikuluko a), b), d), e), g) eta h) idatz-zatietan aipatzen diren egintzak eskritura publikoan jasotzeko aurkeztu behar dira.

2.- c) eta f) idatz-zatietan aipatzen diren egintzak inskribatzeko, hurrengo artikuluan adierazten den eran emandako egiaztagiria aurkeztu beharko da; notarioak egiaztatu beharko du egiaztagiri hori, edo bestela, es-kumena duen funtzionarioak legeztatuko du.

3.- i) eta j) idatz-zatietan aipatzen diren egintzak ebaZen judizial edo administratibo baten bitartez inskribatuko dira.

4.- k) idatz-zatian aipatzen diren idazpenen edukia aldatzeko egintzak, aldatzen den egintza inskribatzekoan eskatu zen agiriaren mota bereko beste agiri batzen bidez inskribatuko dira.

II. ATALA

KOOPERATIBEN ERABAKIEN AGIRIAK

34. artikulua.- Kooperatiben erabakiak egiaztatzea.

1.- Batzar Orokorraren eta kide anitzeko organoen inskribatu beharreko erabakiak ziurtagiri bidez egiaztuko dira; egiaztagiri hori Artezkaria Kontseiluko edo dagokion kide anitzeko organoko idazkariak sinatuko du lehendakariaren oniritziarekin, eta behar iza-nez gero, administratzaile bakarrak sinatuko du.

Ziurtagiria egiten den egunean kargua indarrean eta Kooperatiben Erregistroan inskribatuta ez duten pertsonek emandako erabakiak ez dira inskribatuko; sal-buespen izango dira honako kasu hauek: erabakia indarrean egotea eta behar bezala egiaztatzea erabakia eman zuenak bazuela emateko gaitasuna; edo karguren baten titularra izendatzen duen erabakia egiaztatzea, izendatuak berak egiazatzeko eskumena erabiliz. Kasu horretan, ziurtagiria sinatu egin beharko du aurreko titularrak, edo bestela, aurreko titularrari buruzko jakinarazpen sinesgarria aurkeztu beharko da, eta ezingo da titulua inskribatu, harik eta expedientea Erregistroan sartu eta hamabost egun iragan arte; ezinbestekoia izango da epe horretan aurreko titularrak inolako eragozpenik ez jartzea. Ezadostasuna adierazteko kereila kriminala jarri behar da, ziurtagiria faltsutzeagatik,

k) En general, los actos o contratos que modifiquen el contenido de los asientos practicados o cuya inscripción prevean las leyes o el presente Reglamento.

2.- Son actos objeto de inscripción potestativa:

a) La inscripción del nombramiento y cese de los miembros del Consejo Social y del Comité de Recursos, así como de los apoderamientos singulares.

b) La inscripción de los suplentes en tanto no pasen a ocupar las vacantes correspondientes.

c) El poder general para pleitos.

Artículo 33.- Título inscribible.

1.- Los actos a que se refieren las letras a), b), d), e), g) y h) del artículo 32.1 se presentarán para su inscripción en escritura pública.

2.- Para inscribir los actos a que se refieren las letras c) y f), se presentará certificación expedida en los términos señalados por el artículo siguiente, con las firmas legitimadas notarialmente o autenticadas por el funcionario competente.

3.- Respecto de los actos relacionados en las letras i) y j) su inscripción se practicará en virtud de la correspondiente resolución judicial o administrativa.

4.- La inscripción de los actos modificativos del contenido de los asientos a que se refiere la letra k), se practicará en virtud de documento de igual clase que el requerido para la inscripción del acto que se modifica.

SECCIÓN 2.^a DOCUMENTACIÓN DE ACUERDOS SOCIALES

Artículo 34.- Acreditación de los acuerdos sociales.

1.- Los acuerdos de la Asamblea General y de los órganos colegiados que hubieren de inscribirse en el Registro se acreditarán mediante su certificación, firmada por el Secretario del Consejo Rector o del órgano colegiado correspondiente, con el Visto Bueno del Presidente, o, en su caso, por el Administrador único.

No se inscribirá acuerdo alguno certificado por personas que no tengan, a la fecha de la certificación, su cargo vigente e inscrito en el Registro de Cooperativas, salvo cuando el acuerdo siga aún vigente y se acredite fehacientemente que quien lo tomó tenía capacidad de hacerlo; o cuando se trate de certificar un acuerdo por el que se nombra al titular de un cargo con facultad certificante extendida por el propio nombrado. En este supuesto el certificado deberá ser firmado también por el anterior titular o, en su defecto, se acompañará notificación fehaciente del nombramiento al anterior titular, no pudiéndose realizar la inscripción del título hasta transcurridos quince días desde la fecha de entrada del expediente en el Registro sin oposición del titular anterior. La oposición se justificará por interposición de querella criminal por falsedad en la certificación, o por

edo izendapenaren benetakotasunik eza egiaztatzen duen beste zernahi gorabeheragatik.

2.– Artikulu honen aurreko paragrafoan aipatzen den ziurtagirian zera jasoko da: ziurtagiri hori eman zen eguna eta hartutako erabakiaren baliotasuna eta arauzkotasuna kalifikatzeko beharrezkoak diren gorabehera guztiak:

a) Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen 37.1 artikuluaren honako idatz-zati hauetan ezarritakoak: a), b), c)—dagokion erabakiari buruzkoak bakarrik—, d), f) eta g).

b) Akta egin zen eguna eta akta hori onartzeko era-bilitako sistema.

c) Artikulu honetan adierazitako gainerako gorabeherak.

Kooperatibaren erabakiak nahiz estatutuak jendeari jakinazteko agiria aldatu nahi denean, delako erabakia hitzez hitz idatzi beharko da. Euskadiko Kooperatiben Legeko 73.2 artikuluaren lehen paragrafoan aipatzen diren erabakien egiaztagirietan erabaki horiek legalari aholkulariak emandako Akta Liburuan agertzen direla adierazi beharko da, edo bestela, egiaztatu egin beharko da kooperatiba horrek ez daukala legalari aholkularirik izendatu beharrik.

35. artikulua.— Kooperatibaren erabakiak jasotzen dituzten agiri publikoak inskribatzea.

Kooperatibaren erabakia publiko egiten duen eskri-tura inskribatzeko, erabakiaren baliotasuna kalifikatze-ko beharrezkoak diren alderdi guztiak jasoko ditu tituluak, erregelamendu honen 34.2 artikulan aurrei-kusitakoaren arabera, eta eskritura hori ematen duenak eskumena izan behar du alderdi horiek guztiak egiaztatzeko, edo bestela, erabakia hartu zuen organoak izen-datua izan behar du. Kasu horretan, notarioak deialdia-ren iragarki argitaratua jasoko du eskrituran edo hari buruzko agiria egingo du.

II. KAPITULUA KOOPERATIBAREN INSKRIPZIOA

36. artikulua.— Baltzuaren estatutuen proiektuaren aldez aurreko kalifikazioa.

1.– Eratzen ari den kooperatiba baten kudeatzaileek baltzuaren estatutuen proiektua aldez aurretik kalifi-katzeko eska dezakete, eta horretarako, Batzar eratzai-learen agiriaren bi ale aurkeztu beharko dira, sustatzai-le guztiekin sinatuko dute, eta bertan aldez aurretik ka-lifikatu behar diren estatutuen proiektua jasoko da. Kalifikazio hori hogei eguneko epean egingo da, eskabi-dea Erregistroan sartzen denetik aurrera.

Estatutu-proiektuaren aldeko kalifikazioa ematen bada, dagokion erabakiarekin batera, bilkura-agiriaren ale bat itzuliko zaie kudeatzaileei, behar bezala sinatu-ta eta zigidua jarrita.

otro modo que acredite la no autenticidad del nombra-miento.

2.– La certificación a que se refiere el número ante-rior de este artículo deberá contener la fecha de su ex-pedición así como todas las circunstancias del acta ne-cesarias para calificar la validez y regularidad del acuer-do adoptado, a saber:

a) Las establecidas en los apartados a), b), c), referido únicamente al acuerdo o acuerdos de que se trate, d), f) y g) del artículo 37.1 de la Ley de Cooperativas de Euskadi.

b) La fecha y el sistema de aprobación del acta, en todo caso.

c) Las demás circunstancias señaladas en el presente artículo.

En los supuestos de modificación de la escritura de elevación a público de los acuerdos sociales, o de los Es-tatutos sociales, se requerirá la transcripción literal de dicho acuerdo. Las certificaciones de los acuerdos a que se refiere el artículo 73.2 de la Ley de Cooperativas de Euskadi incorporarán la constancia de que dichos acuerdos figuran en el Libro de Actas dictaminados por el Letrado Asesor o, en su caso, deberá certificarse que la sociedad no está obligada a designar Letrado Asesor.

Artículo 35.— Inscripción de documentos públicos que contengan acuerdos sociales.

La inscripción de la escritura de elevación a público del acuerdo social requerirá que el título contenga todas las circunstancias del acta que sean necesarias para califi-car la validez de aquél según lo previsto en el artículo 34.2 de este Reglamento y que se otorgue por quien es-té facultado para certificarlos o haya sido designado pa-ra aquella actuación por el propio órgano que tomó el acuerdo de que se trate. En su caso, el Notario testimo-niará en la escritura el anuncio de convocatoria publica-do o protocolizará testimonio notarial del mismo.

CAPÍTULO II INSCRIPCIÓN DE LA SOCIEDAD COOPERATIVA

Artículo 36.— Calificación previa del proyecto de es-tatutos sociales.

1.– Los gestores de una Cooperativa en constitución podrán solicitar la calificación previa del proyecto de Estatutos sociales, para lo cual deberá presentarse ejem-plar por duplicado del Acta de la Asamblea constitu-yente, firmada por todos los promotores, que contenga el proyecto de Estatutos sociales cuya calificación pre-via se solicita. Dicha calificación se realizará en el plazo de veinte días desde la entrada de la solicitud en el Registro.

Calificado favorablemente el proyecto estatutario, se devolverá a los gestores, con la resolución correspon-diente, uno de los ejemplares debidamente diligencia-do y sellado.

2.- Erregistroa estatutuen proiektuan zuzen daitekeen okerren bat dagoela ohartzen bada, Euskadiko Kooperatiben Legeko 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera zuzenduko da delako akatsa.

3.- Artikulu honetako aurreko paragrafoetan aipatzen diren kudeatzaileen eskumenak Batzar eratzaileak kontrako erabakirik hartzen ez duen bitartean gauzatu ahal izango dira soilik.

37. artikulua.- Eratzea.

1.- Eratzeko eskritura publikoa Batzar eratzaileak izendatutakoek emango dute, agiri hori sustatzaile guztiek ematen ez badute behintzat.

2.- Eratze-eskritura inskribatzeko, agiriaren lehen-dabiziko kopia eta kopia soilak aurkeztu beharko dira kudeatzaileek nahiz berariaz eskumena eman zaionak sinatutako inskripzio-eskabidearekin batera. Eratze-eskritura hori Batzar eratzailea egin, edo baltzu-estatutuen aldeko kalifikazioa eman, eta bi hilabeteko epean eman beharko da.

3.- Nolanahi ere, eratzeari dagozkion zergen likidazioa eskatu nahiz egin izana egiaztatu beharko da aldez aurretik.

38. artikulua.- Eratze-eskrituraren edukia.

1.- Inskribatu ahal izateko, Batzar eratzailearen akta jasotzeaz gain, Euskadiko Kooperatiben Legeko 12.2 artikuluan adierazitako alderdiak jaso beharko dira gutxienez eratze-eskrituran.

2.- Ezingo da eratu kooperatibarik, baldin eta kooperativa horrek dituen baziak kooperatiba-mota hurrentzat legez ezarritakoa baino gutxiago badira. Horregatik, lehen adierazitako Legean aurreikusten diren beste mota batzuetako baziak ez dira kontuan hartuko.

Eratzean parte hartu dezaketen baziak horiei dago-kienet, baziak horien izaera eta kooperatiban jarduteko bere gain hartzen dituzten funtsezko konpromisoak zeintzuk diren adierazi beharko da.

3.- Sustatzaileek eratu nahi duten kooperatiba zein motakoa izango den berariaz adierazi beharko dute.

4.- Legean nahiz estatutuetan ezarrita dagoenaren arabera, derrigor gutxienez egin beharreko diru-ekarpena, dagokion kreditu-erakundean ordaindutako kopuru en ordainagiri nahiz egiazttagiri bidez frogatuko da, eta notarioari emango zaio.

Ordainketaren bat egiteko badago, eta esku-dirutan ordaindu behar bada, nola ordaindu behar den eta beranduenez noiz egin behar den adierazi beharko da; azken hori egin beharrik ez da izango, egun hori Batzarean zehaztu behar denean.

Falta diren ordainketak egindakoan, eskritura publico bidez inskribatu beharko dira.

2.- Advertidas faltas subsanables en el proyecto estatutario por el Registro, procederá su rectificación de conformidad con lo dispuesto por el número 2 del artículo 9 de la Ley de Cooperativas de Euskadi.

3.- Las facultades de los gestores a que se refieren los números anteriores del presente artículo, sólo podrán ejercitarse siempre que no exista acuerdo en contrario de la Asamblea constituyente.

Artículo 37.- Constitución.

1.- La escritura pública de constitución se otorgará por los designados por la Asamblea constituyente, salvo que lo fuera por la totalidad de los promotores.

2.- Para la inscripción de la escritura de constitución, se aportará primera copia y copia simple, junto con la solicitud de inscripción suscrita por los gestores o por quien se halle facultado expresamente para ello, otorgada en el plazo de dos meses desde la fecha de la Asamblea constituyente, o, en su caso, de la calificación previa y favorable del proyecto de Estatutos sociales.

3.- Será necesaria, en todo caso, la previa justificación de que ha sido solicitada o realizada la liquidación de los impuestos correspondientes al acto de constitución.

Artículo 38.- Contenido de la escritura de constitución.

1.- Para su inscripción en el Registro, la escritura de constitución, además de incluir, en su caso, el Acta de la Asamblea constituyente, deberá contener, al menos, los extremos mencionados en el número 2 del artículo 12 de la Ley de Cooperativas de Euskadi.

2.- No podrá constituirse ninguna Cooperativa que esté integrada por un número de socios, correspondientes a la clase de aquélla, que sea inferior al mínimo legal. En consecuencia, no se computarán los socios de los restantes tipos previstos en la Ley antes mencionada.

Respecto de esos otros socios que puedan concurrir en la constitución, se especificará su naturaleza y los compromisos societarios básicos que asumen.

3.- Deberá manifestarse expresamente la clase de Cooperativa que desean constituir los promotores.

4.- El desembolso de, al menos, la aportación dineraria mínima obligatoria, legal o estatutaria, se acreditará mediante el resguardo o certificación de las cantidades depositadas en la entidad de crédito de que se trate, que se entregará al Notario.

Respecto de los desembolsos pendientes, si los hubiere y debieran efectuarse en metálico, se indicará la forma y el plazo máximo en que hayan de satisfacerse, salvo que este último dato corresponda fijarlo a la Asamblea.

Realizados los desembolsos pendientes, deberán inscribirse mediante escritura pública.

5.– Ekarpenak diruz egin beharrekoak ez badira, ekarpenaren balioa adierazi beharko da. Horretarako, aditu independienteek egindako txostenetan hartuko da oinarriztat, eta sustatzaile bakoitza jartzen dituen ondasunak eta eskubideak, Erregistroko zehaztasunak eta egindako ekarpenaren titulua nahiz kontzeptua adierazi beharko dira. Ondasunen zerrenda egiten denean, eskrituran jasoko da.

Diruz egin behar ez diren ekarpenen izaera, balioa eta edukia zehatztuko dira, baita ekarpen horiek nola eta noiz egin behar diren ere. Ekarpen horiek bere garaian egiten ez badira, diruz ordainduko da horien balioa.

39. artikulua.– Baltzu-estatutuak.

1.– Baltzu-estatutuak inskribatzeko egin beharreko gutxiengoa aipamenak Euskadiko Kooperatiben Legearen 13. artikuluan adierazitakoak izango dira, errejelamendu honetan aditzera ematen diren xehetasunekin batera.

2.– Estatutuetan baziideek komenigarritzat jotako itun eta baldintzak ere jaso daitezke, kooperatiba sortzeko oinarri enedo legeen kontrakoak ez badira, behintzat. Horregatik, ez da baliozkoa izango mota bereko baziideen artean —fundatzaleak izan ala ez izan— desberdintasun arbitrarioak ezartzea.

40. artikulua.– Izena.

Hautatzen den izenarekin batera, «Kooperatiba Sozietatea» edo «Koop. S.» jarri behar da.

Horretaz gainera, izen hori, baliozkoa izan dadin, Erregelamendu honetako 95. artikuluan eta hurrengoeitan xedatutakoari lotu behar zaio.

41. artikulua.– Baltzuaren egoitza.

1.– Kooperatibak, Euskal Autonomia Erkidegoan, bere baziidekin jarduerak gehienbat burutzen dituen lekuaren nahiz administrazio-kudeaketa eta enpresa-zuzendaritzaz zentralizatzen den lekuaren izango du bere egoitza. Jarduerak burutzeko leku nagusia saltegia nahiz ustiapen nagusia dagoen leku bera izango da, eta administrazio-kudeaketa eta enpresa-zuzendaritzaz zentralizazio-guneak, berriz, benetako administrazio eta zuzendaritzarenarekin bat etorri beharko du.

2.– Europako Kooperatiba Sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoan edukiko du bere egoitza, baldin eta bere administrazio zentrala bertan badago.

42. artikulua.– Kooperatibaren helburua.

1.– Kooperatibaren helburua osatzen duten jardueraren guztiek adierazi beharko dira, zehatz eta labur. Delako xedea garatzeko beharrezko egintza material nahiz juridikoak aipatzea komenigarritzat jotzen bada, egintza horiek behar bezala bereizturik arautuko dira.

5.– Cuando los desembolsos de las aportaciones fueran no dinerarios, deberá consignarse su valor, basado en un informe de expertos independientes, describiéndose los bienes y derechos que se aportan por cada promotor, con sus datos registrales, si los tuvieran, y el título o concepto de la aportación. Una vez inventariados se incorporarán a la escritura.

Respecto de los desembolsos pendientes en aportaciones no dinerarias se determinarán su naturaleza, valor y contenido, y la forma y plazo para realizarlas. Si llegado el momento no se efectuaran, se satisfará su valor en dinero.

Artículo 39.– Estatutos sociales.

1.– Las menciones mínimas de los Estatutos sociales, para su inscripción en el Registro deberán corresponder a las señaladas en el artículo 13 de la Ley de Cooperativas de Euskadi, con las especificaciones reguladas en los preceptos siguientes de este Reglamento.

2.– Los Estatutos podrán regular, además, pactos y condiciones que los socios estimen convenientes, siempre que no se opongan a los principios configuradores de la Sociedad Cooperativa, ni a las Leyes. Por ello, no será válido establecer diferencias arbitrarias entre socios de la misma clase, sean o no fundadores.

Artículo 40.– Denominación.

Deberá consignarse junto con la denominación elegida, exclusivamente, la indicación «Sociedad Cooperativa» o «S. Coop.».

Además, la denominación se ajustará para su formación válida a lo dispuesto por el artículo 95 y siguientes de este Reglamento.

Artículo 41.– Domicilio social.

1.– La Cooperativa tendrá su domicilio social, dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el lugar donde realice preferentemente las actividades con sus socios o donde centralice la gestión administrativa y la dirección empresarial. El lugar de realización preferente de las actividades corresponderá a aquél en que esté radicado su establecimiento o explotación principal; el de centralización de la gestión administrativa y la dirección empresarial deberá coincidir con el de la efectiva administración y dirección.

2.– La Sociedad Cooperativa Europea tendrá su domicilio social dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco siempre que radique en el mismo su administración central.

Artículo 42.– Objeto social.

1.– Las actividades que constituyan el objeto social se determinarán, de forma precisa y sumaria, indicando la totalidad de las que lo integran. Si se estimase conveniente aludir a los actos materiales o jurídicos necesarios para desarrollar dicho objeto, se regularán con la debida separación.

Kooperatibaren helburua osatzen duten jarduerak kooperatibak berak eta bazkideek garatu beharko dituzte zuzenean, kooperatibarekin konpromisoaren funtsezko alderdiei dagokienan behintzat. Horretaz gain, kooperatibarekin lankidetza diharduten entitateek erraztu, koordinatu edo osa ditzakete jarduera horiek, eta baita, beste entitate batzuek ere, baldin eta kooperatibak, Euskadiko Kooperatiben Legearen esparruan, euren kapitalean parte hartzen badu.

2.– Bigarren mailako nahiz hurrengo mailako kooperatiben baltzu-estatuetan lehenengo mailako kooperatibatik bigarren mailako nahiz hurrengo mailako kooperatibara aldatzen diren eskumenak zeintzuk diren adierazi beharko da, baita Euskadiko Kooperatiben Legeko 128. artikuluan aipatzen diren gainontzeko alderdiak ere.

43. artikulua.– Iraupena.

1.– Kooperatibaren iraupena adierazi egin beharko da estatuetan.

2.– Epe jakinen bat ezartzen bada, zehaztu egin beharko da epe hori, eta noiz hasten den adieraziko da. Bestela, epe hori eratze-egunetik bertatik hasten dela ulertuko da.

44. artikulua.– Eragiketen hasiera.

Kooperatibaren eragiketak hasteari buruz bestelakoik erabakitzentz ez bada, kooperatibaren eginbeharra eratze-egunetik bertatik hasten direla joko da.

45. artikulua.– Baltzu-ekitaldia noiz itxi.

Estatuetan baltzu-ekitaldia ixteko eguna zehaztu ahal izango da; gehienez urtebete igaroko da. Estatuetan hori zehazten ez bada, baltzu-ekitaldia abenduaren 31n amaitzen dela ulertuko da.

46. artikulua.– Jarduera kooperativizatuaren lurraldede-eremua.

Kooperatibaren estatuetan berariaz jasoko da honako hau: kooperatibaren helburua zehazten duen jarduera kooperativizatua oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan burutuko dela.

Horrek guztiak ez du esan nahi kooperatibak askatasun osoa izango ez duenik EAETIK kanpo hirugarrenkin harreman juridikoak izateko,edo bere helburua betetzeko osagarriak diren jarduera instrumental nahiz pertsonalak burutzerik izango ez duenik.

47. artikulua.– Gutxieneko partaidetzaren konpromisoa.

Euskadiko Kooperatiben Legeko 22. artikuluko c) idatz-zatian araututako obligazioari dagokionez, bazkideen partaidetzarako gutxieneko modulu edo arauak behar bezain argi ezarriko dira estatuetan, zenbateraino betetzen diren eta kooperatibaren helburuarekin zen-

Las actividades que integran el objeto social de la Cooperativa habrán de ser desarrolladas, al menos en los aspectos básicos del compromiso cooperativo, directamente por la misma y por sus socios; sin perjuicio de ello, dichas actividades podrán ser facilitadas, completadas, coordinadas o integradas de cualquier forma, por otras entidades con las que aquélla coopere, o en cuyo capital participe la propia Cooperativa en el marco de la Ley de Cooperativas de Euskadi.

2.– En las Cooperativas de segundo o ulterior grado los Estatutos sociales deberán precisar las facultades transferidas desde la Cooperativa de primer grado a la de segundo o ulterior grado, así como los demás extremos señalados en el artículo 128 de la Ley de Cooperativas de Euskadi.

Artículo 43.– Duración.

1.– Los Estatutos habrán de contener la duración de la Cooperativa.

2.– En el supuesto que se establezca un plazo determinado, se especificará el mismo, indicándose su comienzo. En otro caso se entenderá que la fecha de comienzo corresponde a la de la fecha de la escritura de constitución.

Artículo 44.– Comienzo de las operaciones.

Si no se determina otra cosa respecto del momento de comienzo de las operaciones societarias, se presumirá que la Cooperativa comienza sus funciones en la fecha de la escritura de constitución.

Artículo 45.– Fecha de cierre del ejercicio social.

Los Estatutos podrán fijar la fecha de cierre del ejercicio social que, en ningún caso, superará el año. Si los Estatutos no la fijaran, se entenderá que el ejercicio social concluye el 31 de diciembre de cada año.

Artículo 46.– Ámbito territorial de la actividad cooperativizada.

